



Bidasoa - Txingudi

ESKULTURAK BAZTER GUZTIETAN 1/2

Bere espazio tradizionala kanpoan duen arterik badago, hori eskultura da. Estatua ugari daude gure kaleetan eta gure lorategietan, Historia handiaren edo historia txikien oroitzapenak, iraganeko oroitzapenak, artistaren sentsibilitateari esker oroimen kolektiboan betiko geratu direnak.

Estilo eta garai oso ezberdinetako obra handiak ditu Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko lurraldeak, eta artea gustuko duen edonork bisita ditzake Irungo, Hondarribiko eta Hendaia txoko enblematiko eta ederrenetan barrena ibilaldi ederra eginez une lasai batean.

IRUN

Irungo udalerrian 14 etapako ibilbidea dago egiteko "Ibilbidea Irungo eskulturetan zehar" izenekoan, herritarrek edo bisitariek gero eta ondare aberatsagoarekin goza dezaketela erakusten duena.

01. Nestor Basterretxearen "Iturria" 1969. urtekoa da, eta Nafarroa hiribidearen eta Urantzu kalearen elkargunean.
02. Jorge Oteiza artista gipuzkoar handiaren lana, "Estela", 1971koa, ikus daiteke Santiagoko Nazioarteko Zubitik.
03. Oxinbiribileko parkean dago Gabriel Narzabal irundarraren eskultura, "Laiak" izeneko, 1984koa.
04. Xabier Lakak irabazi zuen Gernikako bonbardaketa gogora ekartzeko lehiaketa 1988an Gernikako Arbolaren parkean jarritako "Laugarren zuhaitza" lanarekin.
05. Iñaki Moreno Ruiz de Eguino da parke berean dagoen 2003ko "Loa a la paz y la palabra" obraren egilea.
06. Jose Ramon Amunarriz plazan, justizia jauregiaren ondoan, dago 2004an eraikitako "Ertz hutsa" obra.
07. Zabaltza plazan dago irudi berezi bat: badirudi Pio Barojaren estatuak bizia hartzen duela 2006tik hiriko kaleetan paseatzeko.
08. "Sirenak" izeneko lana Leopoldo Ferranen eta Agustina Oterorenaren arteko lankidetzaren emaitza izan zen 2006an, eta Aduana kalean dago.
09. Nestor Basterretxearena da "La plancha" lana, 2007koa, eta Harrobieta eta Jose Maria Iparraguirre kaleen artean dago.
10. Jose Mensuro artista irundarrak egin zuen 2008an "Isiltasuna bizi denekoa" lan abstraktua, eta Altzukaitz kalean dago.
11. 2008an jarri zen halaber, "Cantineria" estatua Eskoleta kalean. Herriko jaietan urtero egiten den San Martzialetak Alardeari eskainitako irudia da.
12. Luis Mariano opereta kantari ospetsuak ere badu bere estatua 2009az geroztik, bere izena daraman plazan. Bertan, ondoan eser gaitzek haren "hitz egiteko", beste edozein irundarrekin bezala.
13. Urdanibia plaza berriro urbanizatu behar zutela eta, 2015ean beste estatua bat jarri zen bertan, nekazaritza munduari eskainia, "Etxekoandre" obra, Tomas Ugartemendia eskultorearena.
14. San Migel plaza berrituan omenaldia egin zitzaizen migratzaileei 2019an. Hantxe dago eskultura, gizon bat neskato batekin, maleta eskuan duela.

+ INFO => www.irunhondarribiahendaye.com - www.bidasoaturismo.com - www.hendaye-tourisme.fr



COVID-19k ERAGINDAKO EGOERA

AKITANIA BERRIA

Beste itxialdi baten ondoren, Frantziako Gobernuak hainbat fasetan definitu du deskonfinamendu prozesua, 6 lagun bakarrik bildu daitezke eta nahitaez erabili behar da maskara eta urruntzea:

- **Abenduaren 15etik aurrera =>** Egunez libre zirkulatu ahal izango da, konfinamendua amaitu eta etxeratze-agindua 20:00etatik 6:00etara berrezarrita (abenduaren 24an izan ezik). Saltokiak eta etxez etxeko zerbitzuak ireki ahal izango dira protokolo zorrotzarekin, baina gutxienez urtarilaren 7ra arte mantenduko dira publiko askoko kultura-guneak, hala nola museoak, antzokiak edo zinemak. Eskolaz kanpoko jarduerak baimentzen dira kanpoaldea, baina eutsi egiten zaio bide publikoan pertsonak biltzeko debekuari.

- **Urtarrilaren 20tik aurrera =>** osasun-baldintzek ahalbidetzen badute, kirolguneak eta jatetxeak irekiko dira, aurrez aurreko eskolak hasiko dira berriz bigarren hezkuntzan (15 egun geroago unibertsitateetan), eta baliteke urtarilean eski estazioak irekitzea.

EUSKADI

Abenduaren 12tik, eta gutxienez urtarilaren 11ra arte, Eusko Jaurlaritzak osasun-prebentzioko beste neurri batzuk ezarri ditu, Covid-19aren pandemiari dagokionez.

Maskara erabiltzea eta urruntze-neurria derrigorrezkoak izateaz gainera, honako neurri hauek ezarri ditu:

- Gaueko ordutegian, etxeratze-agindua 22:00etatik 06:00etara izatea (24tik 25era bitarteko gauean eta 31tik 1era bitarteko gauean izan ezik, horien ordutegia 1:30etik 6:00etara izango baita) eta pertsonak ibiltzeko duten askatasuna mugatzea. Gainerako denboran, lehen mailako beharregatik edo ezinbesteko betebeharrak betetzeagatik zirkulatu ahal izango da.

- Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean pertsonak sartzeko eta irteteko mugak, salbuespen justifikatuak izan ezik, salbu eta familiaren etxera itzultzea 12/23tik 12/26ra eta 12/30etik 01/02ra.

- Pertsona-taldeak 6 pertsonatara mugatzea espazio publiko eta pribatuetan, bizikideak direnean izan ezik eta 24tik 25erako eta 31tik 10era bitarteko gauak salbuetsita.

MUGAKO IGAROBIDEA

Udaberriko itxialdian mugako igarobideak kolapsatu zirenean izandako protestak direla eta, zirkulazio murrizketen aldi berri honetan ez da mugak itxeko dekreturik egin, nahiz eta bi noranzkoetan kontrolak egiten diren joan-etorriak justifikatzen dituzten ziurtagiriak egiaztatzeko, bi estatuetan etxeratze-agindua emateko ezarritako ordutegian.

MUGIKORTASUN MAPA

Deskarga eskuragarri hemen: www.irunhondarribiahendaye.com



Turismo Newsletter

7. – 2020ko abendua





ESKULTURAK BAZTER GUZTIETAN 2/2

HONDARRIBIA

Hondarribiko hiriak era askotako eskulturak ditu hiri osoan barrena han eta hemen sakabanatuak.

01. Hirian sartu bezain laster, "San Juan de Dios" eskultura ospetsu eta ikusgarria aurkituko dugu, izen bereko plazan. Pedro Muguruzak egina da 1945ean.
02. Santa Maria atearen aurrean dago "Hachero", Alardeari eskainia eta 2011ko herriko jaietan jarria.
03. "El Oso y el Madroño", 1955ekoa, ikus daiteke Sabino Arana Goiri kaleko lorategietan, Madrilgo bisitari askoren testigantza. Harizko lehoi bat ere aurki dezakegu inguru horretan, 1917ko obra anonimoa.
04. Jose Diaz Bueno eskultoreak egin zuen 1963an Butroi pasealekuaren amaieran jarritako "Muro de Beruete" lana, bai eta Javier Ugarteren estatua ere, izen bereko lorategietan dagoena 1926tik, eta Cristobal de Rojas y Sandoval artzapezpikuaren estatua, 1944tik Apezpiku plazan dagoena, bi hondarribiar ospetsu.
05. Nestor Basterretxearen zenbait eskultura ere topatuko ditugu. Horien artean, nabarmentzekoa da "Zinbaue" lana, Arma plazan jarritakoa 2014ko jaietan.
06. Remigio Mendibururen obrak ere badaude, bereziki 2005eko "Txoria" lana, Puntal edo Talua inguruan Javier Ugarte kalearen hasieran dagoena.

HENDAYE

Hendaiara joango gara. Bertan, interes artistiko handiko ondare-elementuak nabarmendu ditzakegu hiriko hainbat auzotan.

01. Hainbat estatua daude ikastetxeen sarreretan; horien artean, aipatzekoa da Aizpurdi Lizeoko adarbakarra.
02. San Bizente elizaren alde batean, Udaletxearen eta Errepublikaren plazaren ondoan, obra enblematiko eta antzinakoa ikus daiteke: "Apokalipsiaren gurutzea".
03. Hildakoen Monumentua Gotorleku Zaharreko lorategietan dago, Gaztelu Zahar frontoiaren parean, eta "Gerra Handiko Heroiei" eskainitako eskultura ikusgarria ere badu.
04. Beharbada, eskualde osoko eskulturarik sortzaileenak eta deigarrienak Abbadia Gazteluaren kanpoaldean daude. Estatua ugari ditu paretak apaintzen, animalia exotiko asko irudikatuz, hala nola elefanteak, krokodiloak, tximinoak, sugeak, barraskilo erraldoiak eta zakur basatiak.

+ INFO => www.irunhondarribiahendaye.com - www.bidasoaturismo.com - www.hendaye-tourisme.fr



IBILALDI ZORAGARRIAK

Gaur egungo egoeran, gure eguneroko jardueraren murrizketak direla eta, une egokia izan daiteke gure inguruko paisaia ederrez gozatzeko aukera emango diguten hurbileko ibilbideak egiteko, egun eguzkitsu bat aprobetxatuz geu bakarrik, geure lagun egiteko animaliarekin edo lagunarteko edo familiarterko talde txikietan.

BADIAGO BIDEA

IRUN - HONDARRIBIA - HENDAIA

Bide honek 14 kilometro ditu, Bidasoa ibaiaren eta Txingudiko badiaren bazterrak zeharkatuz, lurraldeko lekuri enblematikoenetik pasatuz, eta mugako hiru hirien (Irun, Hondarribia eta Hendaia) arteko loturaren ikur gisa. Bide hori ondoko ibilbideekin lotzen da eta lotura gisa jarduten du haien artean.

KOSTALDEKO BIDEKKA

HENDAIATIK

Ibilbide honek Ipar Euskal Herriko kostaldea zeharkatzen du, itsasoaren ikuspegi ederrak ikusteko aukera emanez. Urruñatik Hendaiara sartu eta Abbadiko eremua zeharkatzen du, Aporotstipi Interpretazio Zentroetik pasatuz, Gaztelu-Behatokiko lorategiak inguratuz, eta Ondarraitz hondartza ederrean amaitzen da.

BIDASOKO BIDE BERDEAK

IRUNDIK

Ibilbide hau Behobiako nazioarteko zubitik abiatzen da, Irunen, eta Nafarroako Autonomia Erkidegora jotzen du. Trenbide zaharretik doa Endarlatsatik aurrera, Tren Txikitok erabiltzen zuena Aiako Harrietatik ateratako mineralak garraiatzeko.

TALAIA IBILBIDEA

HONDARRIBITIK

Ibilbide hau Hondarribiko babes portutik abiatzen da, eta Jaizkibel mendira igotzen da, Higer itsasargitik pasatuz, Lezorantz. Edozein unetan itsaslabarren ertzer hurbil zaitezke, Kantauri itsasoko olatuen dantza ikusteko, Pirinioetako mendikateko arroken kontra talka egiten.

BESTE BIDE GOGOANGARRI BATZUK

IRUNEN => Hainbat ibilbide daude Aiako Harrietako zuhaitzen artean galtzeko; han, bertan behera utzitako meategiak, haitzuloak eta ur jauziak aurki daitezke, bereziki Irugurutzetako labeak.

HONDARRIBIAN => "Jaizkibel" mendian hainbat bidexka daude, iraganeko historiarekin loturiko aztarnak, dorreak eta gotorlekuak ikusteko, bai eta begiraleku ikusgarriak ere itsasoari eta badiari so egiteko.

HENDAIAN => Abbadiko Eremuan hegaztiak ikus daitezke Dunbetan habiak egiten, flyschak erakusten duen historia geologikoa behatu daiteke edo irudimenak eramaten utzi bertako basoetan.

+ INFO => www.irun.org - www.hondarribia.eus - www.hendaye.fr